Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

807

EBAZPENA, 2010eko urtarrilaren 22a, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearena, 2009. urtean zehar Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionaleko Ikastetxe Elkartuei emandako dirulaguntzak jakinarazteko dena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuak, 2009ko apirilaren 21eko Aginduaren bidez (2009-05-25eko EHAA, 97. zk.), egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionaleko Ikastetxe Elkartuei dirulaguntzak emateko deialdia onartu zuen; laguntza horien xedea zentro horiei 2009. urteko aurrekontu arrunta finantzatzen laguntzea da eta, horrela, gizarterako profesionalak trebatzeko egiten duten lana babestea.

Deialdi hori Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen 2009ko urriaren 5eko Ebazpenak ebatzi zuen, eta interesatu bakoitzari jakinarazi zitzaion; bada, emandako diru-laguntzen berri eman behar da, Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 49.2 artikuluan eta deialdi honetako arau erregulatzaileetako 10.3 artikuluan xedatutako betetzearren.

Horregatik guztiagatik, honako hau,

EBATZI DUT:

Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionaleko Ikastetxe Elkartuei emandako diru-laguntzak jakinaraztea –Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2009ko apirilaren 21eko deialdi-aginduaren babesean eman dira diru-laguntza horiek (2009ko maiatzaren 25eko EHAA, 97. zk.)–; ebazpen honen eranskinean datoz xehetasunak.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko urtarrilaren 22a.

Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordea,
PEDRO LUIS ARIAS ERGUETA.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

807

RESOLUCIÓN de 22 de enero de 2010, del Viceconsejero de Universidades e Investigación, por la que se hacen públicas ayudas concedidas para los Centros Asociados de la Universidad Nacional de Educación a Distancia, en virtud de la convocatoria aprobada para el ejercicio económico 2009.

Por Orden de 21 de abril de 2009, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, se aprobó la convocatoria de ayudas para los Centros Asociados de la Universidad Nacional de Educación a Distancia, con sede en la Comunidad Autónoma del País Vasco, (BOPV número 97, de 25-05-2009), destinada a contribuir en la financiación del presupuesto ordinario de estos Centros para el año 2009, apoyando de este modo la tarea que llevan a cabo en la formación de profesionales para la sociedad.

La convocatoria fue resuelta por Resolución de 5 de octubre de 2009, del Viceconsejero de Universidades e Investigación y ha sido notificada individualmente a los interesados, por lo que, en cumplimiento de lo establecido en el artículo 49.2 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco y artículo 10.3 de las normas reguladoras de esta convocatoria, procede dar publicidad a las subvenciones concedidas.

Por todo ello,

RESUELVO:

Hacer públicas las ayudas concedidas para los Centros Asociados de la Universidad Nacional de Educación a Distancia con sede en la Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo de la convocatoria aprobada por Orden de 21 de abril de 2009, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación (BOPV número 97, de 25 de mayo de 2009), según detalle del anexo de esta resolución.

En Vitoria-Gasteiz, a 22 de enero de 2010.

El Viceconsejero de Universidades e Investigación,
PEDRO LUIS ARIAS ERGUETA.

ERANSKINA/*ANEXO*

2009ko deialdia / *Convocatoria 2009*

URRUTIKO HEZKUNTZARAKO UNIBERTSITATE NAZIONALEKO IKASTETXE ELKARTUENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK

AYUDAS PARA LOS CENTROS ASOCIADOS DE LA UNIVERSIDAD NACIONAL DE EDUCACIÓN A DISTANCIA

Zenbatekoa/*Importe*: 569.583 euro/*euros*

Zk. *Núm.*	Ikastetxe elkartua *Centro asociado*	Herria *Localidad*	Lurraldea *Territorio*	Onuraduna *Beneficiario*	Zenbatekoa euroak *Importe euros*
1	UNED-Bergara	Bergara	Gipuzkoa	UHUN-Bergara Fundazioa *Fundación UNED Bergara*	169.168
2	UNED Bizkaia	Portugalete	Bizkaia	UHUN-Bizkaia Zentru Elkartuaren Fundazioa *Fundación Centro Asociado UNED Bizkaia*	261.681
3	UNED Vitoria-Gasteiz	Vitoria-Gasteiz	Araba *Álava*	UHUNek Vitoria-Gasteizen Zentru Elkartuaren Fundazioa *Consorcio Centro Asociado de la UNED en Vitoria-Gasteiz*	138.734
	Guztira/*Total*				569.583